

**LIBURUA**

Izenburua: 'Letra txarra daukat, eta zer?'

Egilea: Alaine Agirre. **Marrazkiak:** Jokin Mitxelena.

Bilduma: Eta zer? **Orrialde kopurua:** 32 orrialde.

Argitaletxea: Elkar.

Alaine Agirre

IDAZLEA

«Hunkigarria da niretzat horrenbeste umek nire hitzak marraztu izana»

Letra kaskar samarra du liburuko protagonistak. Aitak eta irakasleak maiz esan dioten arren, ez dio aparteko garrantzirik eman sekula horri. Egun batean, baina, maitasun gutuntxo bat idatziko dio bere maiteari, Martinari, letra kaskar samraz idatzi ere. Eta horrek buruhausteren bat sortuko dio mutikoari. Elkarrek antolatzen duen Ipuin eta Ilustrazio Lehiaketan marrazkiak egin behar izan dizkiote hurrek Agirreraren istorioari.

Letra txar samarra omen du liburuko protagonistak, ezta?

Bai, ipuineko protagonista mutil txiki bat da, eta letra txarra dauka. Baina ez da larritzen horregatik. Hala ere, egun batean, ia-ia bere lehen amodioa galtzen du, letra kaskarra dela eta. Gertaera horren erruz bihurtuko da izarren lapur.

Inoiz izan duzu halako estualdirik? Inoiz esan dizute letra kaskarra duzula? Nondik hartu duzu ideia bestela?

Denok dauka letra berezia; bakoitzak berea, eta hori onartzen ikasi behar du. Ideia berez ez zen izan letra txarra daukan mutikotxo baten istorioa kontatzea, baizik eta lehenengo aldiz maitemintzen den haur batena aipatzea.



Letra kaskarra izan edo ez, istorio ugari zirriborratzen omen dituzu.

Ez dakit asko edo gutxi diren; bururaten zaizkidanak. Kopurua baino gehiago, nire ustez garrantzitsuena da norberaren eta irakurlearen gustukoak izatea ipuinak.

Ideiak borborka dituzu, beraz. Zein da zure inspirazio iturria?

Bizitza bera da inspirazio iturririk oparoena. Idazteko gogoia sentitzen dudanean, betaurreko berezi batzuk janzten ditut soinean, eta horiekin kalean, musikan, beste ipuin batzuetan eta pertsonetan ikusten ditudan gauzak lapurtzen ditut, ondoren ipuin bihurtzeko.

Istorio horietako bi argitara eman dituzu

aurten, oso denbora gutxian, gainera. Pozik?

Oso pozik nago hurrengana iritsi direlako eta, zeuk esan bezala, argi izpi batzuk ikusi dituztelako, zeren badut tiraderan sitsak jaten dagoen ipuinik.

Aipatzen ari garen ipuin hau, gainera, Elkarrek antolatzen duen Ipuin eta Ilustrazio Lehiaketarako oinarria izan da. Espero zenuen? Pozik zaude?

Espero ez nuen arren, asko poztu ninduen, ipuina ikastetxe askotako hurren irudimenera sartu, bertan buelta batzuk eman, eta marrazki moduan irten delako.

Aipatu duzun moduan, hurrek ilustrazioak egin behar izan dituzte, zure istorioan oinarrituta. Ikusi dituzu emaitzak? Zer iruditu zaizkizu?

Esan bezala, hunkigarria da niretzat horrenbeste umek nire hitzak marraztu izana. Idatzita dagoen ipuina bat bakarra da, baina haur bakoitzak irakurri duen horretatik bere interpretazio bat sortu du, eta hori marrazkietan islatu da. Begiraden aniztasuna. Zoragarria da.

Istorioa liburuan argitaratu eta apaintzeko, artista handi baten ilustrazioak erabili dituzu. Zer duzu esateko Mitxelenaren lanari buruz?

Artista ez du normalean idazleak aukeratzen, baizik eta argitaletxeak. Baina *Nire potxolina maitea* lehenengo ipuinarekin gertatu zitzaigun gauza bera gertatu zaigu orain ere: bai argitaletxeok eta bai ni ados geunden *Letra txarra daukat, eta zer?* ipuina Jokin Mitxelenak ilustratu behar zuela. Nortasuna eman dio ipuinari, eta bizia pertsonaiei.

Hainbeste ideia buruan jiraka ibilita, izango duzu beste libururen baterako ideien bat.

Orain buruan dabilkidan ideia abentura honen jarraipena da, baina Martinaren ikuspuntutik begirata.